



## AKTEA/19

## BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

(2023-07-11)

<b>Batzarraren izaera:</b>	Ohikoa
<b>Deialdia</b>	1. deialdia
<b>Data:</b>	2023-07-11 (Asteartea)
<b>Lekua:</b>	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela)
<b>Hasiera-ordua:</b>	08:05
<b>Amaiera-ordua:</b>	08:18
<b>Alkate-Presidentea:</b>	NEMEH SHOMALY NADIA
<b>Batzordekideak:</b>	URIARTE ANASAGASTI VICTOR ETXEARRIA TELLERIA ENDIKA ORTUZAR BUTRON XABIER CARUEZO UGALDE MAITE
<b>Bertaratu ez direnak:</b>	GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE
<b>Idazkaria:</b>	LEJARRAGA URIARTE JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E7000D219500A0V7T2K2H8Q1

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 02/08/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/08/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/08/2023 14:04:04

DOCUMENTO: 20230860565

Datea: 03/08/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

## Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2023-07-04 TGB (18)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- 12.1.1 Exekuzio Unitatearen Xehetasun Azterlana hasieraz onartzea.
- 4.- Udal azokako postu baten titularidade aldaketa onartzea.
- 5.- Lokalbide programako dirulaguntza eskaria onartzea.
- 6.- Penta barria futbol zelaia egokitzen jarraitzeko, ENAGASegaz 2023ko lankidetz hitzarmena sinatzea onartzea.
- 7.- Gaztelugatxe alkartearen 2023. urteko dirulaguntza izenduaren hitzarmena sinatzea onartzea.
- 8.- Besalde alkarteari 2023. urteko dirulaguntza izendua sinatzea onartzea.
- 9.- Norbere arazoetarako baimen eskaria onartzea.
- 10.- Norbere arazoetarako baimen eskaria onartzea.
- 11.- Norbere arazoetarako baimen eskaria onartzea.
- 12.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 13.- Eskari eta itaunak.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiet heldu diete. Emaidza honakoa izan da:

### 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2023-07-04 TGB (18)

Bertaratutako batzarkideek 2023ko uztailaren 4ko 18/2023 akta irakurrita, aho batez onartzea erabaki dute.

### 2.- BATZARKIDEEK GAI ZERREDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E7000D219500A0V7T2K2H8Q1

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 02/08/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/08/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/08/2023 14:04:04

DOCUMENTO: 20230860565  
Datea: 03/08/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



adierazi dute.

### 3.- 12.1.1 EXEKUZIO UNITATEAREN XEHETASUN AZTERLANA HASIERAZ ONARTZEA.

#### Xedea

12.1-1 Exekuzio Unitatearen Xehetasun Azterlana hasikeraz onartzea.

#### Aurrekariak

Lehenengoa: 2022ko urriaren 4an Multigestión Galway S.L. enpresak 12.1-1 Exekuzio Unitatearen Xehetasun Azterlana aurkeztu eban. 2022ko urriaren 24an eta azaroaren 24an dokumentazio osagarria aurkeztu da.

Bigarrena: 2023ko ekainaren 5ean udal arkitektoak aldeko txostena egin eban.

Hirugarrena: 2023ko ekainaren 6an Urigintza Saileko txostena eta erabagi proposamena egin ebazan.

Laugarrena: 2023ko ekainaren 28an udal arkitektoak txosten osagarria egin eban.

Bosgarrena: 2023ko ekainaren 30ean udaleko idazkariak aldeko txostena egin eban.

#### Argudioak

Lehenengoa: Udal arkitektoaren txostenean honako hau aipatzen da:

Bermeoko Hiri Antolamendurako Plangintza Orokorraren (H.A.P.O.) 6.2.13 artikulua zahazten ditu 12.1-1 Exekuzio Unitaterako aurreikuspenak:

“EU-12.1-1 Exekuzio Unitatea

I) Erregimen orokorra:

— Sailkapena: Hiri lurzorua.

— Sailkapen orokorra: • E2-Egoitzako Mistoa: 2 .412,59 m<sup>2</sup>.

— Arearen azalera: 2 .412,59 m<sup>2</sup>.

II) Ordenantza partikularrak:

II.a) Proposaturiko antolamenduaren irizpide eta helburuak: Zubiaur K. kalean dan gaur eguneko Zallo kontserba fabrikari dagozkion eraikuntza probetxamenduak exekutatzuz, 12. Areako mantzana osatzea. Zubiaur K. kalean oinezkoen lasaialdi gunea eratu.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E7000D219500A0V7T2K2H8Q1

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 02/08/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/08/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/08/2023 14:04:04

DOCUMENTO: 20230860565

Fecha: 03/08/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Erabilera aldaketak suposatzen dauan eragin sozio-ekonomikoa kontutan edukita, erabilera aldaketa ahalbideratuko dauan berme epea ezartzea.

II.b) Erabilera eta eraikuntza baldintzak:

1) Erabilera eta jabari baldintzak: Etxebizitzen eraikina merkataritzako behe solairuagaz. Hiri eta oinezkoen bide-sarea.

2) Gehiengo probetxamenduak:

— Okupazioa: 1 066 m<sup>2</sup>.

— Sgan eraikita: 5 549 m<sup>2</sup>.

• Lokala: 946.

• Etx. Libreak: 3 069 m<sup>2</sup>.

• Etx. Babestua 0%: 0 m<sup>2</sup>.

• Etx. Tasatua 33%: 1 534 m<sup>2</sup>.

— SAan eraikita: 1 066 m<sup>2</sup>.

— Dauden etxebizitzak: 0.

— Antolamenduz kanpoko etxebizitzak: 0.

— Etxebizitzak guztira: 42.

• Etx. Libreak 67%: 28.

• Etx. Babestua 0%: 0.

• Etx. Tasatua 33%: 14.

— Eraikigarritasun indizea: 2.30 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup>.

— Dentsitatea: 174 etxeb/Ha.

— Zuzkidura publikoak: 768 m<sup>2</sup>.

• Espazio libreak: 768 m<sup>2</sup>.

3) Bolumen eta eraikuntzarako baldintzak:

— Gutxieneko lurzatia: 1 066 m<sup>2</sup>.

— Lerrokadurak: Planoetan eta orri grafikoetan zehaztutakoak.

— Altuerak: BS+7.

III) Hirigintza exekuzioa.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E7000D219500A0V7T2K2H8Q1

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
02/08/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/08/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/08/2023  
14:04:04

DOCUMENTO: 20230860565

Fecha: 03/08/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



— Jarduketa sistema: Hitzarmen sistema.

— Planeamendua eta proiektuak:

- Xehetasun azterlana.
- Urbanizazio Proiektua.

— Epeak: Lau urte xehetasun azterlanerako.”

Hirigintza eta lurzoru 2/2006 legeak bere 73 artikuluan zehazten ditu Xehetasun Azterlanen helburuak:

*“1.– Antolamendu xehatuaren zehaztapenak edozein lurzoru-motatan osatzeko edo egokitzeko dira xehetasun- azterketak. Plangintzan aurreikusita ez badago, xehetasun-azterketak berak erakutsi behar du zehaztapen horiek osatu edo egokitzeko beharra dagoela edo hala komeni dela.*

*2.– Gauza hauetara mugatuko dira xehetasun-azterketak:*

*a) Antolamendu xehatuak agindutako sestrak eta lerrokadurak adieraztea, zuzentzea edo osatzea.*

*b) Bolumenak dena delako plangintzan aurreikusitakoaren arabera antolatzea. Bolumenen berrantolaketa tipologikoaren edo morfologikoaren ondorioz hala egiteko beharra badago edo hala egitea komeni bada, bide berriak egiteko edo zuzkidura publiko berriak egiteko lurzoruaren kalifikazioa ere jaso daiteke antolaketa horretan.*

*c) Urbanizatzeko-lanen, eraikuntzen, instalazioen eta gainerako obra eta hiri elementu osagarrien alderdi eta ezaugarri estetiko eta konpositibo batzuk arautzea. Ezaugarri horiek antolamendu xehatuan egongo dira jasota.*

*3.– Xehetasun-azterketek ezingo dute, inola ere, kasuan kasuko plangintzak azterlan horiek egiteko ezarritako aurreikuspenak urratu edo horiei kasurik ez egin. Halaber, ezingo dute lurzoruari izendatutako erabilera aldatu, eraikigarritasuna handitu eta plangintzak dakartzan bideak edo zuzkidura publikoak ezabatu edo gutxiarazi, aurreko paragrafoko b) letran xedaturikoari ezer kendu gabe.”*

Xehetasun Azterlan honek lerrokadurei eta bolumen eraikiari dagozkien araudiaren zehaztapenak betetzen ditu. Gainera, garaje-partzelen aurreikuspenari buruzko eskakizunei ere erantzuten die.

2023ko ekainaren 28an egindako txosten osagarrian, honako hau gehitzen da:

Dokumentu honen xedea da lerrokadurak eta sestrak osatu eta egokitzea, eta Bermeoko 12.1-1 EUko eraikuntza-bolumena ordenatzea.

12.1-1 eremuko eraikigarritasun osoa mantendu egiten da eta Bermeoko HAPOaren lerrokadurak errespetatzen dira.



Xehetasun Azterlan honek Bermeoko HAPOaren zehaztapen guztiak betetzen ditu, altuera, lerrokadura eta gehieneko eraikigarritasun kopurua eta bete beharreko gainerako hirigintza-baldintzak jarraituz.

Patioen, okupazioaren eta altueren zehaztapenak bete behar direnez, eraikuntza-proiektuaren aurreko eraikuntza-bolumena ezartzea da dokukentu honen helburua.

**Bigarrena:** Udal arkitektoak egindako txostenetan azaltzen dan lez, 12.1-1 Exekuzio Unitatearen Xehetasun Azterlana indarrean dagoan legeak ezarritako araubide eta irizpideetara egokitzen da, beraz, ez dago eragozpenik onartzeko:

Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 98. artikuluan xehetasun azterlanen izapidetzea arautzen da:

**98. artikulua.**– *Xehetasun-azterketak izapidetu eta onartzea.*

1.– *Xehetasun-azterketei eskumena duten udalek emango diete hasierako onespena hiru hilabeteko epean.*

2.– *Hasierako onespena eman ondoren, jendaurrean jarriko dira 20 egunez, dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaraturik, nahi duenak aztertu eta alegazioak egin ditzan.*

3.– *Xehetasun-azterketei behin betiko onespena ematea udalari dagokio; horretarako, hiru hilabeteko epea izango du, hasierako onespena ematen zaienetik. Epe hori ebazpenik jakinarazi gabe igarotakoan, xehetasun- azterketa alderdietako batek eskatuta aurkeztu baldin bada, interesdunak ezetsia izan dela iritzi ahal izango dio.*

Tokiko Araubideari buruzko 1985eko apirilaren 2ko Oinarrizko Legeko 21. artikulua arabera, xehetasun azterlanaren hasierako onespena alkateari jagoko, baina eskumen hori 2023ko ekainaren 29ko 3096. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.

## Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

**LEHENENGOA:** 12.1-1 Exekuzio Unitatearen Xehetasun Azterlanari hasierako onespena emotea.

**BIGARRENA:** Interesdunei 20 eguneko entzunaldia emotea, eta 20 egunean jendaurrean ipintea, BAOen eta egunkari batean argitaratuta.

**HIRUGARRENA:** Hurrengo Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.



#### 4.- UDAL AZOKAKO POSTU BATEN TITULARIDADE ALDAKETA ONARTZEA.

##### Xedea

\*\*\*2724\*\* NAN zenbakidunak, Udal Azokan duen harategiaren eskualdaketa

##### Aurrekariak

Lehenengoa: 2023ko urtarrilaren 11n, \*\*\*2724\*\* NAN zenbakidunak, jubilatuta egingo dela eta, udal azokan duen harategia (Barturen harategia) utziko duela jakinarazi dio udalari eta jabetza Baserriko Okela S.L. enpresari aldatzeko eskabidea aurkeztu du.

Bigarrena: \*\*\*2724\*\* NAN zenbakidunak, 16-17-18 zenbakidun postu finkoak daukaz esleituta. (Barturen Harategia).

Hirugarrena: 2023ko maiatzaren 12an, Baserriko Okela S.L. enpresak udal azokako harategiaren eskualdaketarako eskaria eta dokumentuak aurkeztu ditu.

Laugarrena: 2023ko maiatzaren 31n, Zerbitzu Saileko teknikariak txostena egin du.

Bosgarrena: 2023ko ekainaren 12an Idazkaritza Saileko Administrazio Orokorreko teknikariak txostena egin du.

Seigarrena: 2023ko ekainaren 26n Errenta Saileko teknikariak txostena egin du.

##### Argudioak

Lehenengoa: Eskabidearen batera Baserriko Okela S.L enpresak eskualdatzea egiteko behar den dokumentazio guztia aurkeztu du.

Bigarrena: Erabakia hartzeko ahalmenari jagokonez, alkateari dagokio, baina 2023ko ekainaren 29ko 3096 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, emakidaren eskualdatzea Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio.

##### Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: \*\*\*2724\*\* NAN zenbakidunak dauzkan 16-17-18 zenbakidun postu finkoak (Barturen harategia) Baserriko Okela S.L.ri eskualdatzea onartzea.

BIGARRENA: Errenta Sailari eta Zerbitzu Sailari honen berri ematea.

HIRUGARRENA: Interesdunei erabakiaren berri ematea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.



## 5.- LOKALBIDE PROGRAMAKO DIRULAGUNTZA ESKARIA ONARTZEA.

### Xedea

Lokalbide programa 2023 dala eta, ESKURA SUSHI BAR. ELK.KOOP.TXIKIA enpresak alokairurako egindako dirulaguntza eskabidearen ebazpena

### Aurrekariak

Lehenengoa: Lokalbide programaren, Bermeoko alde zaharrean jarduera barik dauden lokal hutsen erabilera bultzatzeko dirulaguntzaren deialdia 2023ko maiatzaren 11n Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Bigarrena: Dirulaguntza jaso ahal izateko, ekintzaileak Lokalbide programan parte hartzeko eskari-orria eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dau; eta horretarako epea irekita dago.

Hirugarrena: 2023ko maiatzaren 22an, 23an eta 30ean, \*\*\*6695\*\* NAN zenbakidunak, ESKURA SUSHI BAR. ELK.KOOP.TXIKIA enpresaren izenean Lokalbide programan parte hartzeko ekintzaileen eskaera-orria eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu dauz. Alokairuan hartutako lokal hutsaren helbidea: Nardiz tar Benantzio 21 kalea.

Laugarrena: 2023ko uztailaren 4an Kontu hartzaileak aldeko fiskalizazio txostena egin du.

### Argudioak

Lehenengoa: Dirulaguntzaren oinarrietako 2 artikuluari jarraituz, eskaerak udalaren erregistro orokorrean sartzen diren hurrenkeran ebatziko dira, deialdiko finantzaketa agortu arte.

Bigarrena: Kreditua dago 2023-01000-43300-471.00.02 Lokalbide programa aurrekontu partidan.

Hirugarrena: \*\*\*6695\*\* NAN zenbakidunak egindako eskabidea aztertu da eta era egokian aurkeztu da.

Laugarrena: Dirulaguntzaren onuradunak dirulaguntza justifikatu beharko dau oinarrien 7.artikuluan zehazten den moduan.

Bosgarrena: Erabakia hartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri legearen 21.1. artikulua b), f) eta r) atalen arabera, alkatearen ahalmenekoa da, baina 2023ko ekainaren 29ko 3096 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen eta dirulaguntzaren oinarri arautzaileen arabera, Tokiko Gobernu Batzarrari jagoko.





**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: \*\*\*6695\*\* NAN zenbakidunak, ESKURA SUSHI BAR. ELK.KOOP.TXIKIA enpresaren izenean, egindako eskabidea baiestea. Hortaz, ESKURA SUSHI BAR. ELK.KOOP.TXIKIA (IFK: F44992949) 3.600,00€ko dirulaguntza esleitzea.

BIGARRENA: Interesdunari erabakiaren barri ematea eta 7. artikuluari jarraituz justifikazioa egin behar duela ohartaraztea.

HIRUGARRENA: Berualari, Diruzaintza Sailari eta Kontabilitate Sailari erabaki honen berri ematea.

LAUGARRENA: Erabakia dirulaguntzen base nazionalean argitaratzeko agindua ematea Merkataritza, Sustapen eta Turismo Sailari.

BOSGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

**6.- PENTA BARRIA FUTBOL ZELAIA EGOKITZEN JARRAITZEKO, ENAGASEGAZ 2023KO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.**

**Xedea**

ENAGAS TRANSPORTE SAUk, Bermeoko Udalar, Penta Barria futbol zelaiaren egokitzapenagaz jarraitzeko finantziazioan laguntzeko, 2023. urtean egin gura deutson dohaintza arautzeko lankidetz hitzarmena sinatzea onartzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2022. urtean, Penta Barria futbol zelaiaren egokitzapena egiteko, ENAGAS TRANSPORTE SAU eta Bermeoko Udalaren arteko lankidetz hitzarmena sinatu zan.

Bigarrena: 2023. urtean ere, ENAGAS TRANSPORTE SAUk, Bermeoko Udalak egokitzapen lanakaz jarraitzeko, finantziazioan laguntzeko dohaintza egin gura deutso eta dohaintza hori arautzeko lankidetz hitzarmenaren proposamena prestatu da.

Hirugarrena: 2023ko maiatzaren 10ean Idazkaritza Saileko AOTk Justifikatze Memoria eta txosten juridikoa emon ebazan.

Laugarrena: 2023ko maiatzaren 29an, Kontu hartzaileak aldeko fiskalizazio txostena emon eban.

**Argudioak**

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E7000D219500A0V7T2K2H8Q1

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 02/08/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/08/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/08/2023 14:04:04

DOCUMENTO: 20230860565  
Data: 03/08/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Lehenengoa: Toki Erregimena arautzen dauen 7/1985 Oinarri Legearen 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen dauen 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Orokorra onartzen dauen 39/2015 Legearen 86. artikulua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikulua, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 6. artikulua, eta Sektore Publikoaren Errejimen Juridikoa arautzen dauen 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengokoak hartu dira kontutan.

Bigarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Sektore Publikoko Kontratuen Legea onartzen dauen 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarrian jasotakoaren arabera, eta Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.b) artikulua arabera, hitzarmena sinatzeko ahalmena alkateari jagoko, baina 2023ko ekainaren 29ko 3.096. zenbakidun Alkatetza Dekretuaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrarengan dago delegatuta.

### **Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: ENAGAS TRANSPORTE SAUK, Bermeoko Udalar, Penta Barria futbol zelaiaren egokitzapenagaz jarraitzeko finantziazioan laguntzeko, 2023. urtean egin gura deutson dohaintza arautzeko lankidetza hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, Kirol Sailari, Ekonomia Sailari eta Diruzaintzari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

## **7.- GAZTELUGATXE ALKARTEAREN 2023. URTEKO DIRULAGUNTZA IZENDUAREN HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.**

### **Xedea**

2023. urterako udal Aurrekontuan aurreikusita dagoen dirulaguntza nominatiboa bideratzeko, Gaztelugatxe alkarteagaz hitzarmena sinatzea.

### **Aurrekariak**

Lehenengoa: 2023. urterako udal Aurrekontuan, Gaztelugatxe alkartearen aldeko dirulaguntza nominatiboa aurreikusten da eta, ondorioz, dirulaguntza bideratzeko hitzarmena prestatu da.



Bigarrena: 2023ko maiatzaren 10ean, Idazkaritza Saileko teknikariak hitzarmenaren Justifikatze Memoria eta txosten juridikoa emon dauz.

Hirugarrena: 2023ko maiatzaren 12an, Kontu hartzaileak fiskalizazino txostena emon eban, eragozpen etenarazleagaz, ez egoalako egiaztatuta ez datela debekurik onuraduna izateko.

Laugarrena: 2023ko ekainaren 15ean, Gaztelugatxe alkarteak onuradun izateko debekurik ez daukala egiaztatzeko agiriak aurkeztu ebazan.

### Argudioak

Lehenengoa: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzen 7/1985 Legearen 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen dauen 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Adminitratibo Orokorra onartzen dauen 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 28.1 artikulua, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 6. artikulua eta Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen dauen 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengokoetan xedatutakoak hartu dira kontutan.

Bigarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Sektore Publikoko Kontratuen Legea onartzen dauen 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarrian jasotakoaren arabera, eta Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.b) artikulua arabera, hitzarmena sinatzeko ahalmena alkateari jagoko, baina 2023ko ekainaren 29ko 3096. zenbakidun Alkatetza Dekretuaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrarengan dago delegatuta.

### Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 2023. urterako udal Aurrekontuan jasotzen dan Gaztelugatxe alkartearen aldeko dirulaguntza nominatiboa bideratu ahal izateko, hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari eta Diruzaintzari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

## 8.- BESALDE ALKARTEARI 2023. URTEKO DIRULAGUNTZA IZENDUA SINATZEA ONARTZEA.

### Xedea



Sahararen aldeko karabana solidarioa aurrera eramateko Asociación de Amigos del pueblo saharai BESALDE alkarteari dirulaguntza nominatiboa bideratzeko hitzarmena sinatzea.

### **Aurrekariak**

Lehenengoa: 2023. urterako Aurrekontuan, hirugarren munduko gizarte laguntzak partidaren barruan, BESALDE alkarteari dirulaguntza nominatiboa jasoten da, eta alkarteari aitaturako dirulaguntza nominatiboa bideratzeko hitzarmena prestatu da.

Bigarrena: 2023ko apirilaren 17an, Idazkaritza Saileko AOTk Justifikatze Memoria eta txosten juridikoa emon ebazan.

Hirugarrena: 2023ko maiatzaren 12an, Kontu hartzaileak fiskalizazio txostena emon eban, eragozpen etenarazleagaz, ez egoalako egiaztatuta ez datela debekurik onuraduna izateko.

Laugarrena: 2023ko maiatzaren 29an, BESALDE alkarreak onuradun izateko debekurik ez daukala egiaztatze agiriak aurkeztu ebazan.

### **Argudioak**

Lehenengoa: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzen 7/1985 Legearen 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen dauen 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Orokorra onartzen dauen 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 28.1 artikulua, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 6. Artikulua, eta Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen dauen 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengokoetan xedatutakoak hartu dira kontutan.

Bigarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Sektore Publikoko Kontratuen Legea onartzen dauen 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarrian jasotakoaren arabera, eta Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.b) artikulua arabera, hitzarmena sinatzeko ahalmena alkateari jagoko, baina 2023ko ekainaren 29ko 3096. zenbakidun Alkatetza Dekretuaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrarengan dago delegatuta.

### **Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 2023. urterako Aurrekontuan, hirugarren munduko gizarte laguntzak partidaren barruan, BESALDE alkarteari dirulaguntza nominatiboa bideratzeko, Asociación de Amigos del pueblo saharai BESALDE alkarreagaz hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E7000D219500A0V7T2K2H8Q1

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 02/08/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/08/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/08/2023 14:04:04

DOCUMENTO: 20230860565  
Data: 03/08/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari eta Diruzaintzari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

## 9.- NORBERE ARAZOETARAKO BAIMEN ESKARIA ONARTZEA.

### Xedea

Norbere arazoetarako soldata gabeko baimena. Udal honetako aldi baterako \*\*\*0093\*\* NAN zenbakidun langilearen eskaria onartzea.

### Aurrekariak

Bakarra: 2023ko ekainaren 20ko datarekin aurkeztutako idatzian, GOSeko etxez etxeko zerbitzuko \*\*\*0093\*\* NAN zenbakidun langileak, Udalhitzeko 62. artikuluan ezarritakoaren arabera, norbere arazoetarako soldata gabeko baimena eskatu du, 2023ko uztailaren 24tik-2023ko abuztuaren 24ra arte biak barne.

### Argudioak

Lehenengoa: Bermeoko Udaleko lan-kontratudun langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren 62. artikuluan honako hau ezartzen da:

- “ 1. Norberaren arazoetarako ordaindu gabeko baimenak eman ahal izango dira.
2. Baimen horren gutxieneko iraupena etenik gabeko 7 egun naturalekoa izango da eta baimen egun horien batuketa ezin izango da **lau** hilabetekoa baino gehiagokoa izan bi urtean.
3. Administrazioan bertan edo besteren baten mailaketan gora egiteko asmoarekin egin beharreko hauta-ikastaroetan edo praktika-epeak bete ahal izateko, baimenak emango dira. Ikastaroen eta praktiken iraupen bera izango du baimenak, baina baimen horiek ez dute ordainsaria jasotzeko eskubiderik ematen.

Bigarrena: 2023ko ekitaldirako, Gizarte Segurantzako kotizazioari, langabeziari, jarduera uzteagatik babesari, Soldatak Bermatzeko Funtzari eta lanbide-heziketari buruzko lege-arauak garatzen dituen urtarrilaren 30eko PCM/74/2023 Aginduaren 7. artikuluan honako hau xedatzen da:

“**Artículo 7.- Cotización en la situación de alta sin percibo de remuneración.**

1. Cuando el trabajador permanezca en alta en el Régimen General de la Seguridad Social y se mantenga la obligación de cotizar conforme a lo dispuesto en el artículo 144.2 del texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social, aprobado por el Real Decreto Legislativo 8/2015, de 30 de octubre, sin



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E7000D219500A0V7T2K2H8Q1

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 02/08/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/08/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/08/2023 14:04:04

DOCUMENTO: 20230860565  
Data: 03/08/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



que perciba remuneración computable, se tomará como base de cotización la mínima correspondiente al grupo de su categoría profesional. A efectos de cotización por las contingencias de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales se tendrá en cuenta el tope mínimo de cotización establecido en el artículo 2.2. Las citadas bases de cotización se aplicarán exclusivamente, y de forma proporcional al número de días, respecto del período en que los trabajadores permanezcan en esta situación.

- Lo dispuesto en el apartado anterior no será de aplicación a las situaciones previstas en la Orden del Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, de 27 de octubre de 1992, por la que se dictan instrucciones en relación con la cotización al Régimen General de la Seguridad Social de los funcionarios públicos incluidos en el campo de aplicación de dicho Régimen, durante las situaciones de licencia o permiso sin sueldo, suspensión provisional de funciones, cumplimiento del servicio militar o de la prestación social sustitutoria y plazo posesorio por cambio de destino.”

Ondorioz, soldata gabeko baimena dagoen bitartean, kotizatzeke betebeharra izango da, kotizazio-oinarri gisa bere lanbide-kategoriako taldeari dagokion gutxienekoa hartuta.

### Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

**LEHENENGOA:** GOSeko etxez etxeko zerbitzuko \*\*\*0093\*\* NAN zenbakidun langileari 2023ko uztailaren 24tik-2023ko abuztuaren 24ra arte (biak barne) norberaren arazoetarako ordaindu gabeko baimena onartzea.

**BIGARRENA:** 2023ko ekitaldirako, Gizarte Segurantzako kotizazioari, langabeziari, jarduera uzteagatiko babesari, Soldatak Bermatzeko Funtzari eta lanbide-heziketari buruzko lege-arauak garatzen dituen urtarrilaren 30eko PCM/74/2023 Aginduaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, soldata gabeko baimena dagoen bitartean, kotizatzeke betebeharra izango da, kotizazio-oinarri gisa bere lanbide-kategoriako taldeari dagokion gutxienekoa hartuta.

## 10.- NORBERE ARAZOETARAKO BAIMEN ESKARIA ONARTZEA.

### Xedea

Norbere arazoetarako soldata gabeko baimena. Udal honetako aldi baterako \*\*\*0265\*\* NAN zenbakidun langilearen eskaria onartzea.

### Aurrekariak

**Bakarra:** 2023ko ekainaren 13ko datarekin aurkeztutako idatzian, GOSeko garbitasun zerbitzuko \*\*\*0265\*\* NAN zenbakidun langileak, Udalhitzeko 62. artikuluan ezarritakoaren arabera, norbere arazoetarako soldata gabeko baimena eskatu du, 2023ko ekainaren 12tik-



#### Sinadurea eta data



2023ko abuztuaren 12ra arte biak barne.

## Argudioak

Lehenengoa: Bermeoko Udaleko lan-kontratadun langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren 62. artikuluan honako hau ezartzen da:

- “ 1. Norberaren arazoetarako ordaindu gabeko baimenak eman ahal izango dira.
2. Baimen horren gutxienerako iraupena etenik gabeko 7 egun naturalekoa izango da eta baimen egun horien batuketa ezin izango da **lau** hilabetekoa baino gehiagokoa izan bi urtean.
3. Administrazioan bertan edo besteren baten mailaketan gora egiteko asmoarekin egin beharreko hauta-ikastaroetan edo praktika-epeak bete ahal izateko, baimenak emango dira. Ikastaroen eta praktiken iraupen bera izango du baimenak, baina baimen horiek ez dute ordainsaria jasotzeko eskubiderik ematen.

Bigarrena: 2023ko ekitaldirako, Gizarte Segurantzako kotizazioari, langabeziari, jarduera uzteagatik babesari, Soldatak Bermatzeko Funtzari eta lanbide-heziketari buruzko lege-arauak garatzen dituen urtarrilaren 30eko PCM/74/2023 Aginduaren 7. artikuluan honako hau xedatzen da:

*“Artículo 7.- Cotización en la situación de alta sin percibo de remuneración.*

1. Cuando el trabajador permanezca en alta en el Régimen General de la Seguridad Social y se mantenga la obligación de cotizar conforme a lo dispuesto en el artículo 144.2 del texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social, aprobado por el Real Decreto Legislativo 8/2015, de 30 de octubre, sin que perciba remuneración computable, se tomará como base de cotización la mínima correspondiente al grupo de su categoría profesional. A efectos de cotización por las contingencias de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales se tendrá en cuenta el tope mínimo de cotización establecido en el artículo 2.2. Las citadas bases de cotización se aplicarán exclusivamente, y de forma proporcional al número de días, respecto del período en que los trabajadores permanezcan en esta situación.
2. Lo dispuesto en el apartado anterior no será de aplicación a las situaciones previstas en la Orden del Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, de 27 de octubre de 1992, por la que se dictan instrucciones en relación con la cotización al Régimen General de la Seguridad Social de los funcionarios públicos incluidos en el campo de aplicación de dicho Régimen, durante las situaciones de licencia o permiso sin sueldo, suspensión provisional de funciones, cumplimiento del servicio militar o de la prestación social sustitutoria y plazo posesorio por cambio de destino.”

Ondorioz, soldata gabeko baimena dagoen bitartean, kotizatzeke betebeharra izango da, kotizazio-oinarri gisa bere lanbide-kategoriako taldeari dagokion gutxienerako hartuta.

## Erabakia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E7000D219500A0V7T2K2H8Q1

### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 02/08/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/08/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/08/2023 14:04:04

DOCUMENTO: 20230860565

Fecha: 03/08/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E7000D219500A0V7T2K2H8Q1



Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: GOSeko garbitasun zerbitzuko \*\*\*0265\*\* NAN zenbakidun langileari 2023ko ekainaren 12tik-2023ko abuztuaren 12ra arte (biak barne) norberaren arazoetarako ordaindu gabeko baimena onartzea.

BIGARRENA: 2023ko ekitaldirako, Gizarte Segurantzako kotizazioari, langabeziari, jarduera uzteagatik babesari, Soldatak Bermatzeko Funtsari eta lanbide-heziketari buruzko lege-arauak garatzen dituen urtarrilaren 30eko PCM/74/2023 Aginduaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, soldata gabeko baimena dagoen bitartean, kotizatzeke betebeharra izango da, kotizazio-oinarri gisa bere lanbide-kategoriako taldeari dagokion gutxienekoa hartuta.

## 11.- NORBERE ARAZOETARAKO BAIMEN ESKARIA ONARTZEA.

### Xedea

Norbere arazoetarako soldata gabeko baimena. Udal honetako aldi baterako \*\*\*8822\*\* NAN zenbakidun langilearen eskaria onartzea.


### Aurrekariak

Bakarra: 2023ko ekainaren 27ko datarekin aurkeztutako idatzian, GOSeko Gizarte langile zerbitzuko \*\*\*8822\*\* NAN zenbakidun langileak, Udalhitzeko 62. artikuluan ezarritakoaren arabera, norbere arazoetarako soldata gabeko baimena eskatu du, 2023ko uztailaren 17tik-2023ko uztailaren 23ra arte biak barne.

### Argudioak

Lehenengoa: Bermeoko Udaleko lan-kontratudun langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren 62. artikuluan honako hau ezartzen da:

- “ 1. Norberaren arazoetarako ordaindu gabeko baimenak eman ahal izango dira.
2. Baimen horren gutxieneko iraupena etenik gabeko 7 egun naturalekoa izango da eta baimen egun horien batuketa ezin izango da **lau** hilabetekoa baino gehiagokoa izan bi urtean.
3. Administrazioan bertan edo besteren baten mailaketan gora egiteko asmoarekin egin beharreko hauta-ikastaroetan edo praktika-epeak bete ahal izateko, baimenak emango dira. Ikastaroen eta praktiken iraupen bera izango du baimenak, baina baimen horiek ez dute ordainsaria jasotzeko eskubiderik ematen.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E7000D219500A0V7T2K2H8Q1

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 02/08/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/08/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/08/2023 14:04:04

DOCUMENTO: 20230860565  
Data: 03/08/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia





Bigarrena: 2023ko ekitaldirako, Gizarte Segurantzako kotizazioari, langabeziari, jarduera uzteagatik babesari, Soldatak Bermatzeko Funtsari eta lanbide-heziketari buruzko lege-arauak garatzen dituen urtarrilaren 30eko PCM/74/2023 Aginduaren 7. artikuluan honako hau xedatzen da:

**“Artículo 7.- Cotización en la situación de alta sin percibo de remuneración.**

1. Cuando el trabajador permanezca en alta en el Régimen General de la Seguridad Social y se mantenga la obligación de cotizar conforme a lo dispuesto en el artículo 144.2 del texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social, aprobado por el Real Decreto Legislativo 8/2015, de 30 de octubre, sin que perciba remuneración computable, se tomará como base de cotización la mínima correspondiente al grupo de su categoría profesional. A efectos de cotización por las contingencias de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales se tendrá en cuenta el tope mínimo de cotización establecido en el artículo 2.2. Las citadas bases de cotización se aplicarán exclusivamente, y de forma proporcional al número de días, respecto del período en que los trabajadores permanezcan en esta situación.
2. Lo dispuesto en el apartado anterior no será de aplicación a las situaciones previstas en la Orden del Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, de 27 de octubre de 1992, por la que se dictan instrucciones en relación con la cotización al Régimen General de la Seguridad Social de los funcionarios públicos incluidos en el campo de aplicación de dicho Régimen, durante las situaciones de licencia o permiso sin sueldo, suspensión provisional de funciones, cumplimiento del servicio militar o de la prestación social sustitutoria y plazo posesorio por cambio de destino.”

Ondorioz, soldata gabeko baimena dagoen bitartean, kotizatzeke betebeharra izango da, kotizazio-oinarri gisa bere lanbide-kategoriako taldeari dagokion gutxienekoa hartuta.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: GOSeko Gizarte langile zerbitzuko \*\*\*\*8822\*\* NAN zenbakidun langileari 2023ko uztailaren 17tik-2023ko uztailaren 23ra arte (biak barne) norberaren arazoetarako ordaindu gabeko baimena onartzea.

BIGARRENA: 2023ko ekitaldirako, Gizarte Segurantzako kotizazioari, langabeziari, jarduera uzteagatik babesari, Soldatak Bermatzeko Funtsari eta lanbide-heziketari buruzko lege-arauak garatzen dituen urtarrilaren 30eko PCM/74/2023 Aginduaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, soldata gabeko baimena dagoen bitartean, kotizatzeke betebeharra izango da, kotizazio-oinarri gisa bere lanbide-kategoriako taldeari dagokion gutxienekoa hartuta.

**12.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.**



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E7000D219500A0V7T2K2H8Q1

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 02/08/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/08/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/08/2023 14:04:04

DOCUMENTO: 20230860565  
Data: 03/08/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Ez da ezer adierazi.

### 13.- ESKARI ETA ITAUNAK.

Ez da eskaerarik ezta itaunik egin.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

*Orrri oinean sinatzailea eta data*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E7000D219500A0V7T2K2H8Q1

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
02/08/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/08/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/08/2023  
14:04:04

DOCUMENTO: 20230860565

Fecha: 03/08/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

